

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

BERDINTASUN, EUSKARA ETA GOBERNANTZA SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 908/2023 Erabakia, abenduaren 28koa. Onespena ematea 2024ko dirulaguntzen deialdi publikoari, euskararen bidez sozializatzeko programak gauza daitezten Arabako Lurralde Historikoan eta Trebiñuko enklabeen, udalek eta kuadrillek sustatuta

Arabako Foru Aldundiko Berdintasun, Euskara eta Gobernantza sailak proposatu du udalei eta kuadrillei dirulaguntzak emateko deialdi publikoa egitea, 2024ko ekitaldian euskararen bidez sozializatzeko programak egin ditzaten.

Aginduzko txostenak aztertu dira.

Horregatik, Berdintasun, Euskara eta Gobernantza Diputatuak proposatuta, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bileran gaia aztertu ondoren, honako hau

ERABAKITZEN DUT

Lehena. Onartzea euskararen bitartez sozializatzeko programak egiteko Arabako Lurralde Historikoan eta Trebiñuko enklabeen udalei eta kuadrillei emango zaizkien dirulaguntzen deialdi publikoa. Deialdi publiko hori 2024ko ekitaldian indarrean egongo den erabaki honi erantsi zaio eranskinean (oinarriak) eta I - V bitarteko eranskinetan (inprimakiak), 190.000,00 euroko gehieneko zuzkidurarekin. Deialdia Foru Gobernu Kontseiluaren 23/2020 Foru Dekretuak arautuko du (23/2020 Foru Dekretua, uztailaren 21ekoa, Diputatu Nagusiaren Sailak lehiaketa bidez ematen dituen dirulaguntzak arautzen dituzten oinarri orokorrak onartzen dituena; ALHAO, 84. zenbakia, 2020ko uztailaren 27koa).

Elkarrekin edo irabazteko asmorik gabeko entitateek sustatutako euskararen bidez sozializatzeko programak egiteko dirulaguntzen deialdirako esleitutako urteko guztirako zenbatekoaren ehuneko 25 handitu ahal izango da zenbateko hau 2024ko ekitaldian, dirulaguntzak norgehiagoka bidez eman ondoren soberako kreditua geldituz gero.

Bigarrena. Ebazpen honetan arautzen diren dirulaguntzak Arabako Foru Aldundiaren 2024ko ekitaldiko aurrekontuan dagokion aurrekontu- partidaren kargura ordainduko dira (zenbatekoa: 190.000,00 euro). Beraz, dirulaguntzak emateko, ezinbestekoa izango da kreditu egokia eta nahikoa egotea dirulaguntza ebazten den unean.

Hirugarrena. Euskararen Foru Zerbitzuaren proposamena aztertuta, organo eskudunak bidezko den ebazpena hartuko du; horretarako, gehienez ere, sei hilabeteko epea izango du, deialdia ALHAOn argitaratzen denetik aurrera. Epe horretan esanbidezko ebazpenik hartzen ez bada, interesa duten erakundeek ezetsizat jo ahal izango dute eskaera.

Laugarrena. Deialdi hau ALHAOn argitaratzea.

Bosgarrena. Erabaki honen kontra administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkez daiteke Gasteizko administrazioarekiko auzien epaitegietan, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik bi

hilabete pasatu baino lehen, 29/1998 Legearen 46. artikuluan xedatzen den bezala. Horren aurretik lege horren 44. artikuluan arautzen den errekerimendua aurkeztu ahal izango da.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko abenduaren 28a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Berdintasun, Euskara eta Gobernantza foru diputatua

JONE BERRIOZABAL BÓVEDA

Euskararen eta Gobernu Irekiaren zuzendaria

LEXURI UGARTE ARETXAGA

ERANSKINA

Dirulaguntzen deialdia, udalek eta kuadrillek euskararen bitartez sozializatzeko programak gauza ditzaten 2024. urtean

Lehenengoa.- Xedea eta helburua.

Deialdiaren xedea da norgehiagoka bidez dirulaguntzak ematea 2024ko ekitaldian euskararen bitartez sozializatzeko programak antolatzeko, garatzeko eta gauzatzeko Arabako Lurralde Historikoan eta Trebiñuko enklabean, Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 21eko 23/2020 Foru Dekretuak xedatutakoaren esparruan (ALHAO, 84. zenbakia., 2020ko uztailaren 27koa; dekretu horren bidez Diputatu Nagusiaren Sailak norgehiagoka bidez ematen dituen dirulaguntzen oinarri orokor arautzaileak onartu ziren).

Sozializaziotzat joko da pertsonen arteko interakzioa, beti ere hizkuntza komunikazio bitarteko izanik. Beraz, laguntza hauen helburu nagusia da gizarte programa eta jardueri laguntzak ematea, honetarako: Arabako Lurralde Historikoan eta Trebiñuko enklabean euskal hiztunak eta horien sareak aktibatzeke, eta lurraldean euskaraz bizitzeko baldintzak eman daitezen aukerak sortzen jarraitzeko, *Arabak Euskara Sustatzeko Plan Estrategikoan (2019-2022)* jasotzen denari jarraituz.

Bigarrena.- Aurrekontu egozpena.

Dirulaguntzen guztirako zenbatekoa ezin da izan Arabako Foru Aldundiaren 2024ko ekitaldiko aurrekontuan dagokion aurrekontu partidako zuzkidura baino gehiago (zenbatekoa:190.000,00 euro). Beraz, dirulaguntzak emateko ezinbestekoa da kreditu egoki eta nahikoa egotea deialdia ebatzen denean.

Elkarteek edo irabazteko asmorik gabeko entitateek sustatutako euskararen bidez sozializatzeko programak egiteko dirulaguntzen deialdirako esleitutako urteko guztirako zenbatekoaren ehuneko 25 handitu ahal izango da zenbateko hau 2024ko ekitaldian, dirulaguntzak norgehiagoka bidez eman ondoren soberako kreditua geldituz gero.

Hirugarrena.- Erakunde onuradunak eta baztertuak.

Arabako Lurralde Historikoko eta Trebiñuko Enklabeke udalak eta kuadrillak, Vitoria- Gasteizko Udala eta hura parte den kuadrilla izan ezik.

Deialditik baztertuta geratzen dira 23/2020 Foru Dekretuaren hirugarren oinarrian aipatzen diren egoeretan dauden erakundeak (23/2020 Foru Dekretua, uztailaren 21ekoa, Diputatu Nagusiaren Sailak lehiaketa bidez ematen dituen dirulaguntzak arautzen dituzten oinarri orokorrak onartzen dituen; ALHAO, 84. zenbakia., 2020ko uztailaren 27koa).

Laugarrena.- Diruz lagundu daitezkeen programak.

4.1. Dirulaguntza jasotzeko baldintza orokorrak:

Programek, haien jarduera eta prozeduren bitartez diruz laguntzeko modukoak izango badira, euskara komunikazio ibilgailu izanik pertsonen gizarte interakzioa izan behar dute xede espezifikoko eta nabarmena.

Diruz lagundu ahal izango dira 2023ko abenduaren 1etik 2024ko azaroaren 30era bitartean egiten diren euskararen bidez sozializatzeko programak.

Dirulaguntza jasotzen duen erakundeak bermatu behar du dirulaguntza gauzatzeko egiten dituen dokumentuetan hizkuntza sexismorik gabe erabiltzea, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako eta Indarkeria matxistarik gabeko bizitzetarako legearen testu bategina onartzen den martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan, ezartzen duena betetzeko. Aipatutako legeri jarraituz, Euskal botere publikoek hizkera inklusiboa eta ez-sexista erabili behar dute irudi eta hizkera mota guztietan, zuzenean eta beste pertsona edo entitate batzuen bitartez sortzen dituzten dokumentuetan eta euskarrietan.

4.2. Dirulaguntza lerroak:

Dirulaguntza lerroa	Eremua	Plan estrategikoko ardatza	Gehieneko aurrekontua
A)	Aisia eta kirola	Gizarte erabilera	95.000,00 euro
	Transmisioa	Hiztun berriak	
B)	Administrazioa Arlo sozioekonomikoa Euskarazko hedabideak Kultura	Gizarte erabilera	26.000,00 euro
C)	Euskalduntzea	Hiztun berriak	37.000,00 euro
D)	Gazteria	Hiztun berriak	10.000,00 euro
E)	Trebiñu-laguntza teknikoa	Lankidetzako laguntza teknikoa	22.000,00 euro

A) eta B) lerroetan dirulaguntzak emango dira aurreko taulako epigrafeetako eremuetan dauden proiektuak egiteko, honako berezitasun hauek kontuan hartuz:

- Hiztunak aktibatzerara bideratutako programak transmisioaren eremukotzat hartuko dira, eta *mintzalagun*, *berbalagun* edo antzeko programak aisialdiko jardueratzat.
- Aisialdiko programetan, dirulaguntza jasotzeko honako baldintza hau bete beharko da: erakunde onuradunak konpromisoa hartu beharko du programaren ardura duten langileen (begiraleak) ehuneko 100ek euskararen bitartez sozializatzeko ikastaro bat egiteko.
- Lerro hauetan, hiztunak Euskaraldiaren esparruan aktibatzekeo programek ere dirulaguntza jaso dezakete.

Euskaraz egin arren, euskararen bitartez sozializatzeko prozedurak jasotzen ez dituzten programek ez dute dirulaguntzarik jasoko.

Euskalduntzeko programetan dirulaguntzarako onartuko dira euskara ikastaroak edo euskaraz trebatzeko saioak (on-line ikastaroak, Aisa, Esadazu euskaraz, ostalaritzako langileentzako ikastaroak, denbora libreko begiraleentzako ikastaroak, jangelako begiraleentzakoak, eskolaz kanpoko jardueretako begiraleentzakoak, etab.), baldin eta euskaltegi homologatuan ematen badira 2023ko irailaren 1etik 2023ko abenduaren 31ra arte eta 2024ko urtarrilaren 1etik 2024ko abuztuaren 31ra arte. Hain zuzen ere, deialdian ezartzen den aldia irakasleak kontratatzeak eragiten dituen gastuak onartuko dira dirulaguntzarako.

“Gazteria” lerroko programetan, pilotu proiektuak abian jartzea onartuko da dirulaguntzarako, eta kontuan hartuko da euskararen bidez sozializatzeko ekintzetan egiten den berrikuntza, 14-18 edo 19-29 urte tartetean, modu presentzian zein teknologikoan. Programa baterako bakarrik emango da dirulaguntza. Dirulaguntza jasotzeko, gutxienez 70 puntu lortu beharko dira, eta puntuaziorik handiena dutenei emango zaie dirulaguntza.

“Trebiniu-laguntza teknikoa” lerroan, Trebiniuko enklabeak udalek soilik jaso ahal izango dute dirulaguntza euskararen inguruko laguntza teknikoa ematen jardungo duten euskara teknikariak kontratatzeko, baldin eta Arabako Foru Aldundiak horretarako beste laguntzarik eman ez badie. Kontratatzaren diren euskara teknikariek honako lan hauek egin beharko dituzte gutxienez:

- Euskararen ezagutza eta erabilera sustatzea Trebiniuko enklabeak herritarren eta eragile sozial eta ekonomikoen artean, eskatzen dutenean, eta udal erakundeei laguntzea euskara sustatzen eta euskararen ezagutzaren eta erabileraren sustapena Lurralde Historikoko eta Trebiniuko enklabeak erakunde publikoekin eta entitate pribatuarekin koordinatzen.
- Itzulpen zerbitzua eskaintzea eskatzen duten eragile ekonomikoek teknikariak egin duen plangintzaren eta dauden baliabideen arabera.
- Euskara sustatzeko plana prestatzeko, egiteko edo abian ipintzeko lanak egitea.

Bosgarrena.- Diruz lagundu daitezkeen gastuak.

5.1. Eremu hauetako programak: A) “Aisialdia eta kirola”, B) “Administrazioa, sozioekonomia, euskarazko hedabideak eta kultura”, C) “Euskalduntzea”, D) “Gazteria” eta E) “Trebiniu-laguntza teknikoa”.

Programa hauetan, diruz lagundu ahal diren gastutzat joko dira dirulaguntza jasotzen duen programaren zuzeneko gastuak.

Ez dira diruz laguntzeko modukoak izango, dirulaguntza lortzeari edo justifikatzeari dagokienez, gastu hauek:

- Euskalduntzearen esparruan, dirulaguntzetatik kanpo geratzen dira irakasleen garraio gastuak, bai eta udalek eta kuadrillek, barne funtzionamenduan, beren langileentzat eta lan orduetan sustatzen dituztenak ere.
- Erakundea mantendu eta martxan jartzeko gastu orokorrak.
- Ondasun higigarriak eta higiezinak erosi, konpondu eta zaharberritzeko gastuak.
- Publizitate, ordezkaritza, kudeaketa, protokolo, itzulpen, oturuntza eta opari gastuak, eta antzekoak.
- Inbertsio gastu direnak.

Diruz lagundu daitezkeen aurrekontuari hasieran onartu zaion muga oinarri hartuta, aldaketak onartu ahal izango dira diruz lagundu daitezkeen kontzeptu eta zenbatekoetan, nahiz eta diruz lagundu daitezkeen kontzeptuetakoren bat gauzatu gabe gelditu. Desbideratze horiek Euskararen Foru Zerbitzuaren oniritzia izan beharko dute. Aldaketa horiek justifikatuta egon beharko dute, eta ez dute ekarriko inola ere proiektuaren aldaketa nabarmenik. Bestalde, diruz lagundutako gastuen aldean ezarritakoa bete beharko dute.

Ezin denez jakin etorkizunean zer egoera izango dugun, dirulaguntza deialdi honen bidez diruz lagun daitezkeen programak eta jarduerak aldatu ahal izango dira gauzatze epea bukatu aurretik, une bakoitzean hartu beharreko neurrien arabera. Halakoetan, erakunde onuradunak eskaera bidali beharko dio Euskararen Foru Zerbitzuari, eta hark aldaketarekin ados dagoela adieraz dezake, betiere hirugarrenen eskubideei kalterik egin ezean.

5.2. Trebiñuko enklabe udalek euskara teknikariak kontratatzea:

Dirulaguntza jaso ahal izango da euskararen ezagutza eta erabilera sustatzeko programetan ariko diren euskara teknikariak kontratatzeko.

Seigarrena.- Eskaerak aurkeztea.

1. Eskaerak I. eranskineko ereduaren arabera egin behar dira, eta Berdintasun, Euskara eta Gobernantza diputatuari bidali behar zaizkio.

2. Eskaerarekin batera honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

A) Administrazio agiriak. Eskaerarekin batera hauek egiaztatzen dituen agiri bat aurkeztu behar da:

- Erakundearen organo eskudunaren erabakia, baimentzen duena eskabidea aurkeztea eta gastua partez finantzatzea.
- Erantzukizunpeko adierazpena, non konpromisoa hartzen baita aisialdiko programetan (udalekuak, jolas txokoak, ludotekak, gaztelekuak eta antzekoak) ariko diren langile guztiak gutxienez Batxilergoa euskaraz egina edukitzeko edo B2 maila egiaztatzeko, Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuaren arabera, edo baliokidea.
- Aurkeztutako ekimenak kudeatzeko dauden baliabideak: giza baliabideak, baliabide materialak eta azpiegiturak.
- Zinpeko adierazpena, non konpromisoa hartzen baita aisialdiko programetan (udalekuak, jolas txokoak, ludotekak, gaztelekuak eta antzekoak) aritzen diren langile guztiak programa hasi aurretik euskararen bitartez sozializatzeko ikastaro bat bederen egiteko.

B) Berariazko agiriak, II. eranskinaren arabera. D) eremuko proiektuak ("Gazteria"): V. eranskina bete behar da.

Programa bakoitzaren deskribapena:

- Programaren eta haren ekintzen helburua eta azalpena.
- Jasotzaileak (14-18 edo 19-29 urte bitarteko gazteak).
- Aurreikusten den parte hartzaile kopurua, generoaren arabera bereizita.
- Berdintasunarekin eta kultura aniztasunarekin zerikusi zuzena duten ekintzak, halakorik badago.
- Metodologia eta euskararen bitartez sozializatzeko neurriak.

- Eremuak: 1- Gizarte erabilera (aisia eta kirola); hitzun berriak (transmisioa). 2- Gizarte erabilera (Administrazioa, arlo sozioekonomikoa, hedabideak eta ingurune digitala, kultura); 3- Hitzun berriak (helduen euskalduntzea).
- Programaren gastu eta diru sarreraren aurrekontu xehatua. Diru sarreraren atalean zehaztu behar dira beste administrazio batzuei eskatutako dirulaguntzak, erakundearen ekarpena, Berdintasun, Euskara, Gobernantza Sailari eskatutako zenbatekoa eta bestelako diru sarrerak, halakorik badago.

3. Administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearen 39/2015 Legearen 14.2 artikulua betez, eskaera modu telematikoan aurkeztu beharko dute nahitaez, Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoen bidez (Erregistro Elektronikoa Komuna: <https://egoitza.araba.eus/-/tr-registro-electronico-comun>) edo beste administrazio publiko batzuen erregistro elektronikoen bidez, pertsona juridikoek, nortasun juridikorik gabeko entitateek, jarduera horretan egiten dituzten izapideak egiteko elkargoko kide izan beharra eskatzen duen jarduera profesionalean dihardutenek, eta Administrazioarekin harremanak baliabide elektronikoen bitartez eduki behar dituzten interesdunen ordezkariak.

4. Ematen diren kopiek dirulaguntzak emateko administrazio prozedura izapidetzeko bakarrik balioko dute. Administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearen Legeak 28.7 artikuluan ezarritakoaren arabera, onuraduna da aurkeztutako agiriaren egiazkotasunaren erantzulea. Hala ere, Administrazioak beharrezkoak diren jarduketa guztiak egin ahal izango ditu egiaztatutako egitateak eta aurkeztutako agiriak benetakoak direla egiaztatzeke, eta interesdunek Arabako Foru Aldundiaren esku jarriko dituzte horretarako eskatzen zaizkien agiri guztiak.

Zazpigarrena.- Eskaerak aurkezteko epealdia.

Eskaerak aurkezteko epealdia hogeitun egun baliaduneko izango da deialdi hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Zortzigarrena.- Prozeduraren instrukzioa.

Espedientearen instrukzioa egiteko eskumena Arabako Foru Aldundiko Berdintasun, Euskara eta Gobernantza Saileko Euskararen Foru Zerbitzuak dauka.

Bederatzigarrena.- Balorazio irizpideak eta programa bakoitzerako gehienek emango den zenbatekoa.

1. *Mintzalagun* programek eta euskalduntzeko proiektuek gehieneko puntuazioa jasoko dute (100 puntu).

2. Hartzailerek euskararen bitartez sozializatzea da helburua. Ez dira balioetsiko eskatzaileen eskaeran argi eta zehatz azalduta agertzen ez diren arloak.

3. Honako balorazio irizpide hauek aplikatuko dira:

3.1 A) “Aisia eta kirola eta transmisioa” eta B) “Administrazioa, sozioekonomia, euskarazko hedabideak eta kultura” eremuetako programak baloratzeko honako irizpide hauek aplikatuko dira:

- a) Jasotzaileak.
Gehienez, 15 puntu.
- | | |
|---|----|
| - Gazteak eta nerabeak | 15 |
| - Umeak eta gurasoak, familia unitatean | 10 |
| - Helduak, jendea oro har | 5 |
- b) Zeharkakotasuna.
Gehienez, 10 puntu.
- | | |
|---|---|
| - Genero berdintasuna sustatzen duten ekintzak. | 5 |
| - Kulturartekotasuna sustatzen duten ekintzak. | 5 |
- c) Programaren intentsitatea.
Gehienez, 15 puntu.
- | | |
|---|----|
| - Intentsitate handiko programa (jarraitua, sari egiten dena, ez noizbehinka) | 15 |
| - Intentsitate gutxiako programa (jarraipenik gabe, noizbehinka egiten dena) | 5 |
- d) Sozializazio maila
Gehienez, 15 puntu.
- | | |
|-----------|----|
| - Taldeka | 15 |
| - Banaka | 5 |
- e) Euskararen erabilera.
Gehienez, 40 puntu.
- | | |
|--|----|
| - Hitzunak aktibatzeako berariazko neurriak aplikatzea | 40 |
| - Hitzunen arteko gizarte interakzioa | 20 |
| - Euskararen erabileraren sustapena | 10 |
- f) Lurralde oreka
Gehienez, 5 puntu.
- | | |
|---|---|
| - 2024ko urtarrilaren 1ean 1.000 biztanle edo gutxiago dauden udalerriak | 5 |
| - 2024ko urtarrilaren 1ean 1.000 biztanle baino gehiago dauden udalerriak | 0 |

Irizpide bakoitzari dagozkion puntuen batuketak guztirako kopuru bat izango du emaitza, eta eskala honetara ekarrita, emaitza horren arabera gehieneko dirulaguntza adieraziko du, dirulaguntza kalkulatzeko aurrekontua oinarritzat hartuta.

PUNTUAZIOA	DIRULAGUNTZAREN GEHIENEO EHUNEKOAK
0 - 30 puntu	0
31 - 50 puntu	30
51 - 65 puntu	40
66 - 80 puntu	50
81 - 100 puntu	60

Emaitzako zenbatekoen batura deialdiaren diru zuzkidura baino gehiago bada, jaso beharreko zenbatekoak hainbanatu egingo dira arestian azaldutako eskalan ezarritako ehunekoaren proportzioan, deialdiaren aurrekontu balibideetara egokitzeko.

3.2. D) "Gazteria" eremuko programak baloratzeko honako irizpide hauek aplikatuko dira:

- a) Zeharkakotasuna.
Gehienez, 10 puntu.
- Genero berdintasuna sustatzen duten ekintzak. 5
- Kulturartekotasuna sustatzen duten ekintzak. 5
- b) Sozializazioa eta teknologia berriak euskararen bidez:
Gehienez, 60 puntu.
- Sozializazio maila. 35
- Sozializazio maila teknologia berrien bidez. 25
- c) Proiektuaren berrikuntza, sendotzea eta eragina.
Gehienez, 30 puntu.
- Berrikuntza eta orijinaltasuna 10
- Eragina 10
- Sendotzea 10

Proiektu batek baino ez du jasoko dirulaguntza: puntuazio handiena lortzen duenak. Eskatzen den diru kopuru osoa eman ahal izango da. Balorazio batzordeak aurrekontua aztertuko du, eta deialdiaren bosgarren oinarriaren arabera dirulaguntzarako onartu ezin diren gastuak baztertuko ditu. Onartutako aurrekonturako gehienez ere 10.000,00 euro emango dira. Horretarako, gutxienez 70 puntu lortu behar dira.

4.- Gehieneko zenbatekoa ataleko.

4.1. A) "Aisialdia eta kirola eta transmisioa" eta B) "Administrazioa, sozioekonomia, euskarazko hedabideak eta kultura" eremuetako programa bakoitzerako gehieneko zenbatekoa.

A) "Aisialdia eta kirola eta transmisioa" eta B) "Administrazioa, sozioekonomia, euskarazko hedabideak eta kultura" eremuetako programa bakoitzerako ematen den dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa ez da izango aurreko 3. apartatuan ezarritako ehuneko baino gehiago, eta inola ere ez 15.000,00 euro baino gehiago 2024ko urtarrilaren 1ean 5.000 biztanle edo gehiago dauden kuadrilla edota udal bakoitzeko, ez 10.000,00 euro baino gehiago 5.000 biztanle baino gutxiago dauden kuadrilla edota udal bakoitzeko.

Biztanleria dela-eta kontuan hartuko diren datuak Foru Gobernu Kontseiluak toki erakundeek finantzaketako foru funtsean hasiera batean edukiko dituzten behin-behineko partaidetzak onartzeko eta kuadrillei eta udalei 2024ko lehen hiruhilekoa eta kontzejuei 2024ko lehen sei hilekoa ordaintzeko ematen duen erabakian ezarriko dira.

4.2. C) "Euskalduntzea" eremuko programa bakoitzaren gehieneko zenbatekoa.

"Euskalduntzea" eremuko programa bakoitzerako ematen den dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa ez da izango aurreko 3. apartatuan ezarritako ehuneko baino gehiago, eta inola ere ez 6.000,00 euro baino gehiago kuadrilla edo udal bakoitzeko.

4.3. D) "Gazteria" eremuko programa bakoitzerako gehieneko zenbatekoa.

Dirulaguntza bakoitzaren zenbatekoa onartutako aurrekontua izango da; gehienez 10.000,00 euro izango da.

4.4. E) “Trebiñu-laguntza teknikoa” eremuko programa bakoitzerako gehieneko zenbatekoa.

Dirulaguntza bakoitzaren zenbatekoa euskara teknikariaren kontratazioaren kostuaren ehuneko 80a izango da, honako muga konekin: 22.000,00 euro gehienez onuraduneko.

Emaitzako guztirako zenbatekoa deialdiaren zuzkidura ekonomikoa baino gehiago bada, dirulaguntzak proportzio berean lainduko dira.

5. Baldin eta A), B), C) eta D) eremuetako programetarako dirulaguntzak kalkulatu ondoren horietako batean gerakinik badago, balorazio batzordeak proposatu ahal izango du diru kopuru hori gainerako eremuetako programetarako erabiltzea (salbuespena: E) “Trebiñu-laguntza teknikoa”).

Hamargarrena.- Dirulaguntzari uko egitea eta ukapena jakinarazteko epealdia.

Diruz lagundutako programaren bat egiteari uko egitea erabaki duten laguntzen erakunde onuradunek, hartarako dituzten arrazoiak gorabehera, lehenbailehen jakinaraziko dute hari uko egiten diotela, alegia, dakiten bezain laster.

Aurreko apartatuan aipatzen diren ukoak modu elektronikoan aurkeztu beharko dira Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez (Erregistro Elektroniko Komuna) edo Administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearen Legearen 16.4 artikuluan arautzen diren organoen erregistro elektronikoaren bidez.

Hamaikagarrena.- Ebazpena.

1.- Balioespen batzordeak aztertuko ditu eskaerak. Batzorde horren burua Euskararen eta Gobernu Irekiaren zuzendaria izango da, eta honako hauek izango dira batzordekideak: Euskararen Foru Zerbitzuaren burua eta Euskararen eta Gobernu Irekiaren Zuzendaritzari atxikitako bi teknikari. Idazkaritza Teknikoko eta Herritarrak Atenditzeko Zerbitzuaren burua izango da idazkaria; hitza izango du, baina ez botorik.

Berdintasun, Euskara eta Gobernantza Sailak, egoki deritzen kasuetan, aukeran izango du aurkeztutako agiriari buruzko datuak eta azalpenak eskatzea. Espedientea atzeratu, eta are artxibatu ere egin daiteke, datu edo azalpen horiek ez badira bideratzen Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak ezartzen dituen epeetan.

Aurkeztutako eskaerak deialdian ezarritako irizpideen arabera alderatu ondoren, balioespen batzordeak txostena egingo du ebaluazioaren emaitza zehaztuz, eta, beharrezkoa bada, eskaeren arteko lehenetsua ezarriko du.

2.- Ez da egongo entzunaldiko izapiderik, ebazpena emateko ez baitira aintzat hartuko erakunde onuradunek aurkeztutako gertaerak eta agiriak baino.

3.- Organo eskudunak, Euskararen Foru Zerbitzuaren proposamena ikusita, bidezko ebazpena emango du deialdia ALHAOn argitaratzen denetik sei hilabete pasatu baino lehen. Epealdi horretan berriazko ebazpenik ematen ez bada, interesdunek ezetsitatz jo ahal izango dute eskaera.

4.- Dirulaguntzak emateko ebazpenean zehaztu beharko da zer erakundek jasoko duten dirulaguntza, eta adierazi gainerako eskaerak ezetsi egin direla.

5.- Ebazpenean, positiboa izanez gero, dirulaguntzaren zenbatekoa adieraziko da, bai eta ordaintzeko modua, ukitutako programa edo jarduera, aurkeztu beharreko dokumentazioa eta zenbatekoa emateko baldintzak ere.

6.- Dirulaguntza eman edo ukatzen duen ebazpenaren berri emango zaie eskatzaileei, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 43. artikuluan xedatzen duen moduan.

7.- Ebazpenak administrazio bidea amaitzen du; beraz, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 46. artikuluan xedatzen duenari jarraituz, haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da administrazioarekiko auzietarako kasuan kasuko epaitegietan. Horretarako, bi hilabete izango dira ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Hala ere, aurretik, jakinarazpenaren biamunetik bi hilabeteko epealdian, egintza ezesteko eskatu ahal izango da. Errekerimendua Berdintasun, Euskara eta Gobernantza diputatuari egin beharko zaio idazki arrazoituaren bidez. Errekerimendua jasotzen denetik hilabete pasatutakoan erantzunik eman ezean, ezetsizat joko da (29/1998 Legea, 44. artikulua). Errekerimendua eginez gero, administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkezteko epealdia berariazko erabakiaren berriematea jaso edo errekerimendua ezetsizat jo eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuko da.

Hamabigarrena.- Ematen diren dirulaguntzak ordaintzea eta justifikatzea.

1.- Dirulaguntza dena batera ordainduko da, egindako gastuak (behar bezala zerrendaturik) justifikatu ondoren. Gastu guztiak justifikatzeko epealdia 2024ko azaroaren 30ean amaituko da.

Dirulaguntza justifikatzeko aurkeztutako gastuak ordaindu direla frogatzen ez bada, justifikatu beharreko aurrerakin gisa ordainduko da dirulaguntza. 1.000,00 eurotik gorako gastuen ordainketa baino ez da frogatu beharko.

2025ko otsailaren 28rako aurkeztu beharko dira dirulaguntza justifikatzeko gastuak ordaindu direla frogatzen duten agiriak.

2.- Gastuak justifikatzeko, erakunde onuradunek justifikazio kontu erraztua aurkeztuko dute, hain zuzen ere honako hauetan arautzen dena: 11/2016 Foru Araua, urriaren 19koa, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzena, 28.1 eta 2. artikulua; 23/2020 Foru Dekretua, uztailaren 21ekoa, Diputatuen Kontseiluarena, Diputatu Nagusiaren Sailaren norgehiagoka bidezko dirulaguntzen oinarri orokor arautzaileak onartzen dituena, 6. oinarria (ALHAO, 84. zenbakia., 2020ko uztailaren 27koa). Dirulaguntza eskatzen den programa bakoitzeko IV. eranskin bat bete beharko da.

IV. eranskinaz gainera honako hauek agertu behar dira justifikazio kontu erraztuan:

a) Jardueren memoria bat, dirulaguntza ematerakoan ezarritako baldintzak bete direla justifikatzen duena eta egindako jarduerak eta lortutako emaitzak azaltzen dituena (III. eranskina).

b) Jardueraren gastu guztien zerrenda sailkatua, hau da, jardueraren aurrekontu osoa; zerrendan jarri beharko dira hartzekoduna, gastuen agiria edo faktura, zenbatekoa, bidali den data eta, behar denean, ordainketaren data.

c) Banaka edo multzoka gastu kontzeptu bererako 1.000,00 euro (BEZa aparte) gainditzen direnean baino ez da aurkeztu beharko faktura edo balio bereko agiria. Horrekin batera ordaindu izanaren frogagiria ere aurkeztu beharko da.

d) Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten bestelako diru sarreraren eta dirulaguntzen xehetasunak, zenbatekoa eta jatorria adierazita.

e) Behar denean, aplikatu ez diren gerakinak eta horietatik sortutako interesak itzultzeko ordainketa gutuna.

f) Behar denean, azterlan, programa, argitalpen, iragarki kartel eta prestatutako dokumentazio idatzi edo grafiko guztien ale bana. Horiek guztiak bat etorri behar dute eskaeran aurkeztutako programarekin.

g) Erakundearen erantzukizunpeko adierazpena, ezartzen duena aurkeztutako agiriak egiazkoak direla eta bat datozela jatorrizkoekin.

Organo izapidetzaileak eskatu ahal izango dizkie onuradunei egokitzat jotzen dituen dokumentu, argibide, frogagiri eta faktura guztiak, dirulaguntza bere xederako erabili dela behar bezala egiaztatuta ahal izateko.

Gastuak justifikatzeko ez da onartuko honako datu hauek argi eta garbi azaltzen ez dituen fakturarik ez ordainagiririk:

- Egilea: izena edo sozietatearen izena, eta NANA edo IFZ.
- Hartzailea: izena edo sozietatearen izena, eta NANA edo IFZ.
- Gastuaren xedea.
- Data.
- Fakturaren zenbakia.

PFEZen (pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga) konturako atxikipenei buruzko zerga araudia betetzen ez duten fakturak eta ordainagiriak ez dira onartuko gastuen frogagiri gisa, fakturatzeko betebeharren arloko arautegia kontuan hartuz.

Fakturak ordaindu direla frogatzeko, agiri hauek onartuko dira:

- Fakturak, egin duen enpresaren zigilurekin, zenbatekoa ordainduta dagoela adierazten dutenak.
- Erakunde publikoaren P kontabilitateko agiriak.
- Ziurtagiria, honako datu hauek ematen dituen gutxienez: ordainketaren edo transferentziaren zenbatekoa, data eta onuraduna.
- Faktura egin duenak sinatutako edota zigilatutako ziurtagiria, honako datu hauek adierazten dituenak: fakturaren zenbakia, zenbatekoa eta ordainketaren data.
- Posta arruntez jasotako banku laburpenak.
- Posta elektronikoz jasotako banku laburpenak edo transferentzia agindu telematikoak.
- Erosketa tiketak, zenbatekoa ordaindu dela egiaztatzen dutenak (merkataritza gune eta autobideetakoak, bidaia txartelak eta abar).
- Fakturarik eragiten ez duten gastuei dagokienez, gastua egiaztatzen duten froga balioko agiriak.

Ez da onartuko eskudirutan ordaintzea 2024ko ekitaldirako indarreko araudian ezartzen den zenbatekoa edo hortik gorakoa (edo horren kontrabalia atzerriko dirutan).

Aurreko paragrafoan aipatzen den zenbatekoa kalkulatzeko, baldin eta ondasun ematea edo zerbitzua zatikatu bada, eragiketa edo ordainketa guztien zenbatekoak batuko dira.

3. Euskara ikasteko programetan (euskalduntzea), bai eta *Mintzalagun*, *Berbalagun* eta antzekoetan ere, aurreko 2. apartatuan aipatzen diren agiriez gainera honako beste hauek ere aurkeztu beharko dira:

- Programako parte hartzaileen izenen zerrenda, pertsonen eta taldeen guztirako kopurua, programaren iraupena eta taldearen ebaluazioa.

4.- Aisialdi programetan (udalekuak, jolas txokoak, ludotekak, *gaztelekuak* eta antzekoak), aurreko 2. apartatuan aipatzen diren agiriez gainera honako hauek ere aurkeztu beharko dira:

- Programa gauzatzeko duen enpresaren memoria, non zehazten den zer mailatan lortu duen programak euskararen bitartez sozializatzea eta zein neurri hartu diren horretarako.
- Egiatagiria, ziurtatuz aisialdi programaren ardura duen monitoreak, gutxienez, euskaraz ikasi duela Batxilergoa, edo egiaztatu duela B2 maila, hizkuntzen Europako erreferentzia marko bateratuaren arabera, edo baliokidea.
- Erakunde eskatzailearen zinpeko adierazpena edo egiaztatagiria, non adierazten baitu programaren ardura duten langile (begiraleak) guztiek (ehuneko 100) euskararen bitartez sozializatze ikastaro bat bederen eginda daukatela programa hasi aurretik.
- Aisialdiko programa gauzatzeko toki erakundeak kontratatutako enpresaren ziurtagiria, jatorrizkoa, zigilatua eta izenpetua, zerbitzua emateko kontratatu diren begiraleen izen-abizenak zehaztuta.

